

## Arabako Campuseko Baratza ekologikoan egindako irakaskuntza-jarduera

Ikasgaia	Lauhilabetekoa	Ikasle kopurua
LEHENGAIEN EKOIZPENA (Eusk.)	1	47
Gradua	Irakasleak	
ELIKAGAIEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	María Teresa Gómez Sagasti	
Ekintzaren izenburua	<i>"Landareen Ekoizpena" landatzen: Campuseko baratze ekologikora bisita</i>	
Helburua(k)	<p>Jarduera honen helburua da ikasleei baratze-ekoizpen ekologikoari buruzko esperientzia praktiko eta bisual bat ematea. Baratze ekologikora egindako bisitan bilatzen da ikasleek landare aniztasuna zuzenean behatzea eta harekin elkarreragitea, sasoiko frutak eta barazkiak hazteko prozesua hobeto ulertzea eta joeran dauden nekazaritza-praktikak ezagutzea. Horrela, jarduerak aukera ematen die ikasleei ezagutza praktiko horiek ikasgelan landutako kontzeptu teorikoekin integratzeko, "Lehengaien ekoizpena" irakasgaiaren "Landare Ekoizpenaren" atalaren barruan.</p>	
Metodologia eta Praktikaren plangintza	<p>Bisita gidatua. 16 ikasleko taldeak</p> <p>2023ko abenduaren 11 eta 13a. "Landare-ekoizpeneko" laborategiko praktiken esparruan, "Lehengaien ekoizpena" irakasgaiaren barruan, baratze ekologikora 30 minutu inguruko bisita egin zen. Jarduera horretan, ikasleek bertatik bertara ikusi ahal izan zituzten baratzea osatzen duten elementuak, baita baratzean egiten diren baratze-jarduera nagusiak ere. Bisitari esker, ikasleek laborantza jasangarriaren ezaugarri diren maneiu agronomikoen berezitasunak ezagutu ahal izan zituzten, fruta eta barazki desberdinen hazkunde-prozesuaren ikuspegi integrala emanez. Gainera, jarduerak baratzean dagoen landare-aniztasuna aitortzea erraztu zuen, baratze-mundura zuzenean hurbiltzea sustatuz eta ezagutza teorikoa esperientzia praktikoekin aberastuz.</p>	
Praktikaren garapena	<p>Saioa sarrera teoriko labur batekin hasten da, bisitaren asmoa eta nekazaritza ekologikoaren funtsezko alderdiak testuinguruan kokatzen dituen. Bisita honetan, baratzearen alderdi ezberdinen behaketa zuzena egiten da, hala nola, laborantzako teknikak eta sistemak eta landare-aniztasuna. Ikasle-talde bakoitzak baratzeren arduradunekin elkarreragiteko aukera du. Arduradunek xehetasunez azaltzen dituzte baratze-praktikak, landatutako espezieen ezaugarriak eta nekazaritza ekologikoaren berezitasunak. Galderen eta eztabaiden bidez parte-hartze aktiboa sustatzen da, eta ikusizko baliabideak erabiltzen dira ikaskuntza indartzeko, hala nola informazio-kartelak eta erakustaldi praktikokoak.</p>	